

ARETXABALETAKO UDALA

II. BERDINTASUN PLANA

2019-2022



Aretxabaletako
Udala



AURKIBIDEA

3	SARRERA
4	OINARRIZKO KONTZEPTUAK
5-6	PRINTZIPIO GIDARIAK
7-9	LEGE OINARRIAK
10-12	LAN PROZEDURA
13-21	ARETXABALETAKO I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOA
22-23	ARETXABALETAKO II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA
24-44	ARETXABALETAKO II. BERDINTASUN PLANA
45-48	ERANSKINAK

1- SARRERA

Azken urteotan, hainbat aurrera-pausu eman dira lege-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Nazioarte edo estatu mailan ez ezik, foru erkidego ezberdinetan eta udal mailan ere aurrera-pausu handiak ematen ari dira maila legalean. Zentzu horretan, legeek aitortutako berdintasun adierazpen formaletatik at, benetako berdintasuna lortzea da egungo berdintasun politiken erronka nagusia. Berdintasun erreal horretara urratsak ematea da hain zuzen, dokumentu honetan aurkezten den Aretxabaletako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planaren helburua.

Aretxabaletako I. berdintasun planaren indarraldia agortuta, 2017. urtean eman zitzaion haren ebaluazio prozesuari hasiera, eta 2018ko maiatzean eman da bukatutzat prozesu hori. Hala, dokumentu hori oinarri harturik, eta udal teknikari, politikari, herriko talde feminista eta herriko bestelako eragile eta norbanakoen lanari esker sortu da Aretxabaletako emakumeen eta gizonen II. Berdintasun Plan hau, Aretxabaletako udalaren funtzionamenduan, eta udaletik herrira burutzen diren ekintzetan berdintasun ikuspegia zehar lerroko gisa txertatzeko helburuarekin. Tresna honen erabilera ziurtatzeko, herriko eta udaleko berezko ezaugarriak kontuan hartu dira, helburu eta helmuga errealak markatu dira, eta aldi berean neurgarriak eta testuinguruari egokituak diren adierazleak ezarri dira.

Plan hau, udal jardunean –maila eta arlo guztietan- berdintasun ikuspegia zeharkakotasunez ezartzeko tresna bat da; maila honetan, beste arloetako programa eta planekin uztartzeko ahalegin berezia egin da.

Era berean, eta arestian aipatu bezala, herriko talde feministaren eta eragile ezberdinen inplikazioa ere ezinbestekoa izan da plan honen elaborazio prozesuan, eta aurreikusten da exekuzioan ere bereziki garrantzitsua izango dela herriko elkarte, eragile eta norbanako guztien parte hartzea.

2- OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Zer da Berdintasun plan bat? Berdintasunerako plana helburu eta ekintza konkretuen bitartez udalerriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta desorekak ezabatzeko tresna bat da. Epe jakin batean (4 urte) eta toki jakin batean (Aretxabaletan) gauzatu beharreko lan egitarau bat da.

Zergatik egin berdintasun plan bat? EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, agerian uzten du erakunde publikoetan berdintasuna sustatzeko planak eta programak martxan jartzeko premia. Hala, Aretxabaletako udalak duen erantzukizunari eta legeak aitortutako betebeharrei erantzunez, berdintasun politiken norabidea finkatzea ezinbestekoa da. Norabide hori finkatu eta gizarte justuago eta parekideago baten aldeko apustua egikartzeko tresna bat da berdintasun plana.

Nori zuzenduta dago? Berdintasun plana udaleko arlo guztiei, herriko eragile guztiei eta orokorrean, herritar guztiei zuzenduta dago. Bakoitzak bere eremutik, Aretxabaletan berdintasunaren aldeko urratsak ematen laguntzeko tresna da berdintasun plana.

Zeintzuk dira planaren ardatzak?

MAINSTREAMING

Genero ikuspegia departamendu eta ekintza guztietan zeharkakoa izatean datza. Departamendu guztiek berdintasuna beraien helburuetako bat bezala onartu eta hartu behar dute, eta haien eguneroko jardunean zehar-lerroko eta ezinbesteko gai gisa kokatu.

Era berean, genero ikuspegia, herriko eremu eraginkorretan ezartzean datza; eremu sozial, eremu kultural, eremu ekonomiko...

AHALDUNTZEA

Gizartearen eraketa patriarkalak ezarritako posizioaren kontzientziatik, emakumeek haien egoera hobetzeko urratsak ematen dituzte, eremu personal, kolektibo eta soziopolitikoan.

Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzeari deritzogu ahalduntzea. Beraz, emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egiterekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala bateratzeko neurri multzoa. Norbanakoon denbora hiru eremuok asetzea ahalbidetzea, eta era berean emakume eta gizonen denboren erabilera parekatzeko neurriak ezartzean datza. Hala, espazio publiko eta pribatuaren arteko oreka bilatzen da emakume zein gizonentzat.

INDARKERIA MATXISTA

Sexu-genero sistemaren bidez ezarritako botere-harremanean oinarritutako indarkeria. Tradizioz esleitutako genero-eskemak apurtzen dituzten gorputzei espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten zaizkien indarkeria mota guztiak barnean hartzen dituena, gorputz intsumiso horiek pairatzen dituzten zuzeneko indarkeriaren adierazpen askotarikoak haurtzaroan agertzen direla eta, hainbat molde hartuta, bizitza osoan mantentzen direla ulertuta.

3- PRINTZIOPIO GIDARIAK



Egokitasuna

Udaleko eta udalerriko errealitatera egokituko den plan egingarria eta erabilgarria sortzea. Udal mailako baliabide tekniko eta politikoak kontuan hartuko dituenak, bai eta egun dauden egitura eta lan moldeak ere. Herrira begira, herritarren eta herriko eragileen jarduera eta parte hartze dinamikak kontuan hartuko dituenak.

Praktikotasuna

Plan honek, mainstreaming estrategiaren bidez, berdintasun irizpidea udalaren eguneroko jardunean txertatzea du helburu nagusienetako bat. Horretarako, baliabide praktikoak eman nahi dira, berdintasun printzipioa udalaren kudeaketan txertatzeko gakoak emanez, eta horiek garatu behar dituzten agenteentzako tresna baliagarri bat sortu nahi da.

Aniztasuna, interseksionalitatea

Aretxabaleta herri anitza da. Sexu, jatorri, genero, kultura, erlijio, maila ekonomiko, adin edo bizitza eredu anitzak dituzten herritarrez osatzen den herria da. Egoera horietako bakoitzak eragina izan dezake pertsona bakoitzaren egoeraren gainean, eta zapalkuntza bat baino gehiago bizi ditzakete aldi berean. Berdintasun plan honek errealitate horiek guztiak aintzat hartu nahi ditu, eta arreta berezia eskaini nahi dio interseksionalitate horri.

Konpromisoa eta inplikazioa

Dokumentu honetan aurkezten den plana aurrera eramateko, ezinbestekoa da udaleko teknikari eta politikarien, herritarren eta herriko eragileen inplikazioa. Bakoitzak bere eremutik eta eskura dauzkan baliabideak erabiliz berdintasunaren aldeko urratsak ematen jarraitzea behar beharrezkoa da.

Elkarlana eta koordinazioa

I. Berdintasun planaren ebaluazio prozesutik ondorioztatuenez, ezinbestekoa da udal mailan berdintasun politikak garatu ahal izateko, sail eta agenteen arteko koordinazio bideak sendotzea. Plan honen bidez, koordinazio bide horiek sendotzeaz gain, estrategia komunak garatu nahi dira, berdintasun printzipioaren aplikazioa udal osoaren erronka gisa planteatu, eta hori lortzera bideratutako elkarlana sustatu asmoz.

Baliabideen egokitasuna

Plan bat ezin da aurrera eraman, horretarako beharrezko dituen baliabideak esleitzen ez bazaizkio. Era berean, planak berak kontuan izan beharko ditu herriak eskaintzen dituen baliabideak zeintzuk diren. Hala, horien inguruko analisia eginda, baliabide horiek egonkortu eta berauei etekin handiena ateratzera joango gara, arlo guztien inplikazioa eta hauen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatuz.

Plan ebaluagarria

Ebaluaketa funtsezko osagaia da plangintza eta esku hartze prozesu guztietan. Plan bat bukatzen denean ezinbestekoa da jakitea nolako eragina eta oihartzuna izan duen, zeintzuk izan diren emaitza onenak eman dituzten alderdiak eta zeintzuk ezin gauzatu izan direnak edo inolako eraginik izan ez dutenak. Ebaluaketa lagungarria da, orobat, plan berri bat prestatzeko aurreko planak utzitako egoeratik abiatuz eta kontuan izanik aurreko planaren arrakastak eta ahuleziak.

4- LEGE-OINARRIAK

Aurrean esan bezala, Aretxabaletako II berdintasun planaren oinarri dira azken urteotan nazioarte mailan eta estatu, autonomi erkidego edo udal mailan onartutako testu legalak.

Honakoak lirateke horietan garrantzitsuenak kontsideratu direnak:

- ⇒ *Apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Tokiko erregimenaren oinarria arautzen duena. 2003-12-21 ean eguneratua.*
- ⇒ *Otsailaren 18ko 4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea. (EAE)*
- ⇒ *Martxoaren 22ko 4/2007 Lege Organikoa, Emakume eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako Legea. (Espainiar estatu)*
- ⇒ *Tokiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Europako Eskutitza.*
- ⇒ *2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. (Gipuzkoako foru aldundia)*
- ⇒ *EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana.*

Azpimarratu beharrekoak dira, Aretxabaletako II. Plana egiterakoan oinarri izandako bi erreferentzia aipagarrienak: EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

✓ **EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea**

EAEko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Autonomi Erkidego mailan berdintasun politikak garatzerako orduan kontuan izan beharreko zenbait irizpide ezartzen ditu. Horretarako, berdintasun politiketan oinarritzko diren zenbait kontzeptu definitzeaz gain, legearen **7. artikuluan**, tokiko **administrazioen funtzioak** zehazten ditu:

- a) *Genero ikuspuntua integratzeko, prozesu, programa eta egituraren egokitzapena eta eginkizuna du.*
- b) *Ekintza positiboen aktuazio neurriak.*
- c) *Foru Aldundiei dagokien programazioa eta Gobernuaren planifikazio orokorraren testuinguruko planifikazioa.*
- d) *Emakume eta gizonen ezberdintasunen gaineko ezagutza erreal bat izateko, beharrezko diren estatistika eguneratuen egokitze eta mantentzeak burutzea. Eta berdintasuna bultzatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea.*
- e) *Udal herri mailan emakume eta gizonen egoerari buruzko ikerketa eta azterketak garatzea.*
- f) *Emakume eta gizonen egoera ezberdinari buruzko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea. Eta berdintasuna lortzeko martxan jarri beharreko neurriei buruzko sentsibilizazio kanpainak garatzea.*

g) Herriko araudiari jarraipena egin eta emakume eta gizonen berdintasun printzipioa aplikatzeko adostasuna aurrera eramatea.

h) Herriarentzako informazio eta orientazioa ematea, bereziki emakumeei, berdintasunen inguruko errekurtso eta programei buruz. Eta bazterketa anitza pairatzen duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programei buruzko informazioa zabaltzea.

i) Emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programen aurkezpenak egin eta berauek aurrera eramatea.

j) Bizi pertsonala, laborala eta familiarra bateragarriak izateko behar diren establezimendu, errekurtso eta zerbitzu soziokomunitarioak martxan jartzea. (udal mailako izaera du).

k) Entitate publiko nahiz pribatuak, parte hartze bideak, erlazioen ezarpena, bakoitzaren funtzio eta helburuen arabera elkar lana egitea, Udal Herri mailan, emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko.

l) Sexu arrazoiengatik ematen diren diskriminazio eta bazterketa guztiak atzematea eta berauek deusezteko neurriak jartzea.

m) Beste edozein funtzio, beti ere udalaren konpetentzien barruan sartzen bada.

Horrez gain, lege beraren **10. Artikuluak** tokiko administrazioek berdintasun arloan dituzten **eginkizunak** zehazten dira:

a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.

b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d) Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendeen dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.

f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anitzeko jasanen duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.

g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezen proposamenak eta sustapen-lana egitea.

h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria- egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu

bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.

l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

✓ **EAEko gizon eta emakumeen VII. Berdintasun Plana**

Gaur egun Berdintasun Plan bat egiteko kontuan izan beharreko beste erreferentzia nagusia EAEko emakume eta gizonen VII. Berdintasun Plana da.

2018an indarrean sartu den plan honek, lau jarduera esparru definitzen ditu, ekintzen norabidea zehazterako orduan:

- *Gobernu ona euskal herri-administrazioetako antolakuntzan eta funtzionamenduan berdintasuna txertatzeko.*
- *Emakumeen ahalduntzea, emakumeak eta neskek maila pertsonalean eta kolektiboan, zein sozialean eta politikoan ahaldundu daitezen laguntzeko.*
- *Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko eta gizarte eredu jasangarriagoa bultzatzeko.*
Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak, prebentzioa landuz eta bizirik dirauten biktimei arreta integrala emanez guztiz indarberritu arte.

Ezarritako jarduera esparru horien bidez, berdintasun arloan urratsak ematen jarraitzea da helburua, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzen laguntzeko, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan.

5- LAN PROZEDURA

Aipatutako helburuak lortzeko, hainbat fasetan egituratutako lan prozedura jarraitu da 6 hilabeteko epean, aurrean aipatutako lege oinarriak kontuan hartuta, eta Emakunderen VII. Berdintasun plana ardatz harturik.



1. Fasea: Talde sustatzailea osatu, lan tresnen diseinua eta planaren egitura zehaztu

■ Talde sustatzailea honakoek osatu dute:

- Udaleko prebentzio teknikariak
- Berdintasun zinegotziak
- Alderdi politikoetako ordezkari bana
- Talde feministako bi ordezkari
- Daitekeko aholkularia

Funtzioak:

- Berdintasun plana egiteko ekintza guztien koordinazioa.
- Arlo ezberdinen parte hartzea finkatzea
- Herriko emakumeen parte hartzea bermatzeko neurriak ezartzea.
- Lehentasunak finkatzea
- Planean finkatutako ekintza eta helburu zehatz guztien garapena.
- Emaitzak gizartera hedatzea.

2. Fasea: I. Planaren ebaluazioan jasotako informazioaren azterketa eta interpretazioa, eta lehenengo zirriborroa egitea.

2018ko Ekainean amaitutzat eman den ebaluazio dokumentua hartu da II. Berdintasun plan honen oinarri gisa. Hala, behin betiko dokumentu hori aztertu, interpretatu, eta horren araberrako hasierako planteamendu bat egin da. Planteamendu hori I. zirriborroan egikaritu da

3. Fasea: Zirriborroaren kontrastea (talde sustatzaile+ herritar + teknikariek)

Lehenengo zirriborro hori talde sustatzailearekin kontrastatu da, ondoren teknikari, talde feminista eta gizarte eragile eta herritarrekin batera kontrastatu ahal izateko.

Ekintza bakoitzaren arduradun eta aurrekontua zehaztu da bilera hauetan. Helburu eta ekintza bakoitza ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak ere kontrastatu dira une honetan.

4. Fasea: II. Zirriborroa egitea eta kontrastatzea (talde sustatzaile+ teknikari+ politikariek)

Jasotako proposamenekin eta ezarritako lehentasunekin II. Zirriborroa eratu da. Talde eragilearekin bilera bat burutu da kontrasterako, eta teknikari eta politikariei helbide elektronikoko bidez helarazi zaie dokumentua, azken zuzenketak proposatzeko aukera emanez.

5. Fasea: III. Zirriborroa egitea. Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean txertatu.

III. zirriborroarekin batera arlo bakoitzaren urterako programazioa ere egin da. III. zirriborroa Talde eragilearekin kontrastatu ondoren, Emakundera bidali da hauen onspena eta iradokizunak jaso ahal izateko.

6. Fasea: Aretxabaletako II. Berdintasun Planaren onarpena.

Udal plenoan Aretxabaletako Emakume eta gizonen arteko II. berdintasun plana onartu beharko da.

Emakundeko iradokizunak kontutan hartu ondoren eta egondako ekarpenak jaso ondoren, behin betiko Planaren aurkezpena egingo da udal sindikatu eta politikariek eta beste aurkezpen bat udal teknikari eta administrarietara. Ondoren udal plenoan onartu beharko da.

Parte hartzea

Planaren eraketa prozesuan, aurrean azaldu bezala, ezinbestekoa izan da udal teknikarien eta herritarren parte hartzea.

Honako taulan bildu da fase bakoitzean parte hartu duten pertsonen zenbatekoa, arloaren eta sexuaren arabera bereztuta.

TALDEA	AZPI-TALDEA	Hasierako bilera		Kontraste bilerak	
		Emakume	gizon	Emakume	Gizon
TALDE ERAGILEA		4	1	4	1
UDALEKO ORDEZKARIAK	Zerbitzu orokorrak	0	1	0	1
	Kultura	1	0	1	0
	Kirola	0	1	0	1
	Euskara	2	0	2	0
	Hezkuntza eta gazteria	1	0	1	0
	Hirigintza	2	0	3	2
	Gizarte zerbitzuak	3	0	3	0
	Enplegua	1	0	1	0
GIZARTE ERAGILEAK	Elkarte feminista	7	0	*	*
	Elkarte kultural eta kirol elkarteak	6	4		
Udaleko ordezkari politikoak				*	*
Parte hartzaileak guztira		28	8	15	5

*Talde feministak eta politikariek, taldean aztertu dute dokumentua eta berdintasun batzordeko bilerara eraman dituzte ekarpenak talde feministako ordezkariak (2), EAJko ordezkariak eta EHbilduko ordezkariak.

6. ARETXABALETAKO I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOA

Aurrerago aipatu den bezala, 2017an burutu zen Aretxabaletako I. berdintasun planaren ebaluazio prozesua, eta dokumentu hori hartu da plan honen abiapuntu gisa. Hala, honako atalean ebaluazio prozesuan jasotako ondorio nagusiak azaltzen dira, labur azalduta, datozen lau urteetarako adostutako neurriak kokatu ahal izateko eta hauen jatorria ikusi ahal izateko.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO,
KONTSULTATU DOKUMENTU OSOA

MAILA OROKORREAN

Orokorrean berdintasun plana jasotzen duen dokumentuari ez zaio erabilerarik eman arlo gehienetan, eta beraz, ez da arlo bakoitzeko helburuen eta ekintzen identifikazio eta jarraipenik egin..

Dena den, berdintasun politiken norabidea zehaztuko duen II. Plan baten onarpenera begi onez ikusten da, eta aurreko esperientzia ez dadin errepikatu, dagozkion jarraipen mekanismoak ezarri eta dagokion garrantzia eman behar zaiola uste da. Orokorrean, honako oinarritzko baliabideak identifikatzen dira II. Berdintasun plan hau aurrera eraman ahal izateko:

- ✓ Sentsibilizazio eta formazio mailan sakontzea, arlo bakoitzak berdintasun irizpidea bere jardunean txertatzera iritsi ahal izateko
- ✓ Berdintasun planaren eta berdintasun politiken jarraipena egingo duen pertsona baten beharra, erreferente izango dena udal mailan
- ✓ Politikarien inplikazioa

ARLOZ ARLO. LORPENAK ETA ERRONKAK

Teknikariek burututako banakako elkarrizketa bidez, arlo bakoitzari eskatu zaio identifikatzeko zeintzuk izan diren azken urteotako lorpen garrantzitsuenak, eta zeintzuk identifikatzen dituzten aurrera begirako erronka nagusi gisa. Hurrengo koadroetan laburbiltzen dira arlo bakoitzarekin ateratako ondorio nagusiak, pertsonal politikoarekin eta herritarrekin kontrastatuta.

1. ARLOA: ZERBITZU OROKORRAK

LORPENAK
Planaren onarpenaren hedapena egin zen udal mailan eta web orriaren bidez
Herrira begira ekintzak egin dira. Martxoak 8, azaroak 25, ekimen puntualak...
Klausula sozialak txertatu dira diru laguntza batzuetan, horien artean berdintasun konpromisoa duten enpresen kontratazioa lehenesteko baldintza. Desentate kasuetarako irizpidea
Trebakuntza jaso da hizkuntzaren erabilera ez sexistaren inguruan
Politikariek oinarritzko formazioa jaso dute (2017)
Diru laguntzen zuriaketetan berdintasun ikuspegitik datuak jasotzen dira, plantilla baten bidez

HOBETU BEHARREKOAK
Hizkuntzaren eta irudien erabileraren gaineko gomendioen eskuliburu bat sortzea, eta honen gaineko alkatetza dekretu bat onartzea
Datuak sexuaren arabera jasotzeko sistemak ezartzea
Kontratazioetan berdintasun klausulak txertatzea
Langileen kontziliozko neurrien gaineko datuak jasotzeko bidea ezarri eta eguneratuta mantentzea, eta hala dagokionean hobekuntza neurriak proposatzea

2. ARLOA: KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA

a) Kultura

LORPENAK
Diru laguntzen justifikazioan, generoaren araberako datuak biltzen dira
Puntuazio bidezko diru laguntza sistema dago ezarrita
Jaietako programan indarkeriaren aurkako mezuek txertatu dira, berdintasun arloaren inizatibaz
Berdintasun baloreak sustatzen dituzten ekimenak antolatu dira (antzerkiak, ipuin kontaketa...)
Azaroak 25 eta martxoak 8ko ekintzak antolatzen dira
Emakumeen lanak kultur programazioan sartu dira
Tradizioz maskulinizatutako ekintzetan emakumeen parte hartzea sustatu da

HOBETU BEHARREKOAK
Kontratazioan berdintasun ikuspegia txertatzea.
Jai parekideen gaineko lanketa sustatu eta jaietako eraso sexisten prebentzioan aurrera-pausuak eman
Berdintasun arloarekin koordinazio bideak sendotu
Diru laguntza sisteman, berdintasun klausulak zehaztea
Formazioa jasotzeko beharra, bai kultura arloko teknikari eta politikariek, bai eta eragile kulturelek ere

b) *Kirola*

LORPENAK
Berdintasun klausulak ezarri dira diru laguntzetan
Baliabideak eta diru-laguntzak eman dira helburu hori lortzeko jarduerak edo programak dituzten elkarteei. Hala ere, ez dago jardueren antolakuntzara bideratutako diru laguntzen banaketarako irizpiderik zehaztuta
Herriko kirol elkarteetan aurrera-pausuak eman dira
Kiroldegian estereotipoak haustera eta emakumeen kirola sustatzera bideratutako bideoak jarri dira.
Emakumeen bira-ko etapa bat Aretxabaletan kokatu da bi urtetan zehar

HOBETU BEHARREKOAK
Kirol eta berdintasun sailen arteko koordinazio bideak sendotzea
Kiroldegiaren erabilera neurtzeko, erabiltzaileen gaineko datuak sexuaren arabera bereiztuta jasotzea
Estereotipo gabeko kirola sustatzeko kanpainak egin

c) *Euskara*

LORPENAK
Planaren onarpenaren hedapena egin zen udal mailan eta web orriaren bidez
Herrira begira ekintzak egin dira. Martxoak 8, azaroak 25, ekimen puntualak...
Klausula sozialak txertatu dira diru laguntza batzuetan, horien artean berdintasun konpromisoa duten enpresen kontratazioa lehenesteko baldintza. Desenpate kasuetarako irizpidea
Trebakuntza jaso da hizkuntzaren erabilera ez sexistaren inguruan (Batez ere gaztelerazko erabileran) eta Politikariek oinarrizko formazioa jaso dute (2017)
Diputazioarekin kudeatzen diren diru laguntzetan berdintasun ikuspegia txertatzen hasi da
Kontratazioetan sexu abusuen gaineko klausula ezarri da

HOBETU BEHARREKOAK
Berdintasun politiken gaineko gomendioen eskuliburu bat sortzea (hizkuntzaren erabilera ez sexista + diru laguntzetan eta kontratazioetan berdintasun klausulak...), eta honen gaineko alkatetza dekretua onartzea
Datuak sexuaren arabera jasotzeko sistemak ezartzea
Kontratazioetan berdintasun klausulak txertatzea
Langileen kontzilioak neurrien gaineko datuak jasotzeko bidea ezarri eta eguneratuta mantentzea, eta hala dagokionean hobekuntza neurriak proposatzea
Diru laguntzetan berdintasun irizpidea txertatzea
Formazioa

3. ARLOA: GAZTERIA ETA HEZKUNTZA

LORPENAK
Neskei zuzenduriko autodefentsa ikastaroak antolatu dira gazte lekuan
Hizkera eta irudi ez sexisten erabilera sustatu eta harremanen oinarri bihurtu da gazte lekuan
Gaztelekuko begiraleek trebakuntza eta aholkularitza jaso dute. Hezkidetza plana egin dute, eta planifikazioan eta lan moldeetan berdintasun irizpidea txertatzen da
Oporretan umeei zuzendutako ekintzak antolatzen dira
Erakundeekin hezkidetza jardueren garapena sustatu da, gaztematika egitasmoaren bidez
Ikastaroak antolatu dira gurasoentzako (transexualitatea, gizentasuna...)
Bizentaren lumak jolasaren bitartez landu da berdintasunaren gaia. Teorian oso jantzita daude

HOBETU BEHARREKOAK
Indarkeria Protokoloan ikastetxeen inplikazioa bilatu
Ikastetxeekin hezkidetza programak garatzea. Hezkidetza mahaia eratzea, horretara dedikatuko den teknikariaren laguntzarekin.
Ume eta gazteen artean zaintza lanei balioa emateko programa osagarriak egin (Ikastetxeetatik egiten da eta ludoteketatik zerbait egitekotan omen dabilta)
Gazte leku eta ludotekako begiraleei formazioa eskaini era periodikoan. Pausu kualitatibo bat eman beharra: Jardunbide onen dekalogo bat adibidez, plantilla aldatzen denean oinarrizko irizpide bezala balio izango duena
Ludotekan berdintasun ikuspegia landu da, material hezkidetzaillearen inguruan, baina ez dago hezkidetza mailako planifikaziorik.

4. ARLOA: ENPLEGUA ETA LANA

LORPENAK
Enplegagarritasuna hobetzeko ikastaroak handitzen joan dira, eta emakumeen beharretara egokitzen
Datuak sexuaren arabera bereiztuta jasotzen dira eta beste aldagai batzuekin gurutzatzen da

HOBETU BEHARREKOAK
Herriko enpresei berdintasun politiken eta egitasmoen gaineko informazioa helarazteko kanpainak egin, eta hauen jarraipena eraman
Eskualdeko industriaren errealitatea emakumeei ezagutarazteko kanpainak edo ekimenak bultzatu
Herriko enpresei sexu jazarpen protokoloen gaineko informazioa helarazi
Enpresa txikiei kontrataziorako ematen zaien diru laguntzetan berdintasun ikuspegia txertatzea
Aretxarterekin lankidetzan sensibilizazio kanpainak abiatzea

5. ARLOA: GIZARTE ZERBITZUAK

LORPENAK
Genero indarkeria protokoloa egin zen eta koordinazio bilerak egin ziren, nahiz eta ez duen jarraipenik izan
Hizkuntzaren erabilera ez sexista zaintzen da
Sentsibilizazio mailak gora egin du
2013arte gizarte zerbitzu eta berdintasun teknikariaren arteko bilerak egin dira berdintasun arloan gaitzeko.
HOBETU BEHARREKOAK
Emakumeenganako indarkeriaren gaineko sentsibilizazio kanpainak abiatzea
Drogo-menpekotasunak eta generoaren arteko harremanaren nolakotasunak bistaratzeko kanpainak abiat
Emakume migranteen ahalduntze indibidual eta kolektiborako programak martxan jarri
Familia erantzukizunak dituzten eta bakarrik dauden emakumeen beharrak aztertu, eta zerbitzuak moldatu
Sexu heziketaren gaineko informazio eta prebentzio kanpainak indartzea ikastetxeen laguntzarekin
Sexu aholkularitza zerbitzua sortzea

6. ARLOA: HIRIGINTZA

LORPENAK
Hirigintza diagnostikoa egin da, zaintza lanak eta emakumeen segurtasun irizpideak kontuan hartuz
Jolas guneak, sare berdeak,... sustatu dira
Irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartu dira
Kale izendegiaren gaineko azterketa egin zen 2011ko diagnostikoan. Izen toponimikoen aldeko autua egin
HOBETU BEHARREKOAK
2011 urtean egindako diagnostikoaren jarraipena
Hiri plangintza eta diseinuan berdintasun ikuspegia txertatzeko formazioa jasotzea
Plan orokorraren berrikuspenean genero ikuspegia kontuan hartzea
Puntu ilunen lanketaren jarraipena egitea
Parte hartze prozesuetan berdintasun ikuspegia txertatzea

7. ARLOA: BERDINTASUNA

LORPENAK
Azaroak 25 edo martxoak 8 bezalako ekimenak indartu dira
Herrira begira hainbat ekimen burutu dira: Emarock, Dokumentalak, antzerkiak...
Sentsibilizazio maila handitu egin da herrian
Berdintasun teknikaria egon denean, berdintasun planaren jarraipena egin da

HOBETU BEHARREKOAK
Berdintasun arloari egonkortasuna ematea
Arloen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzea
II. berdintasun planaren jarraipenerako mekanismoak ezartzea
Udal mailan berdintasuna zeharlerrokotasunez txertatzeko gakoak eskaintzea gainerako arloei.
Talde feministarekin eta herriko emakumeen elkarrekin harremana eta elkarlana indartzea

PERTSONAL POLITIKOAREKIN EGINDAKO BILERAN ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK

Udaleko talde ezberdinetako politikariekin eginiko lanketan, zenbait ondorio atera dira, aurrean aztertutako Informazioa osatzeko balio izan dutenak.

Orain arte emandako urratsak

- Gizartean aurrera pausu handiak ematen ari dira. Aretxabaletan 2018ko martxoaren 8az geroztik igarri da sentsibilizazio maila handituz doala, eta udala atzean geratzearen arriskua ikusten da.
- Planak bere horretan aldaketarako gaitasun mugatua duela uste da. Udal mailako lanketa sakona eskatzen du, bai teknikarien aldetik, bai eta udalaren inplikazio aldetik ere.

Planaren jarraipena

- Berdintasun plana burutu zenetik 2017ra, hiru legealdi daude tartean, eta legealdi bakoitzean egindako lanketa oso ezberdina da.
- Ez da planaren jarraipenik egin
- Ekintza gehiago burutu dira herritarrei begira, udal mailan baino
- 2014an plangintza bat egin zen berdintasun arlotik, baina gerora ez da gehiago egin.


Erronkak

- Departamendu bakoitzak gidalerro bat behar du
- Oreka bat behar da udal mailako lanketa eta herri mailako lanketaren artean
- Kaleko dinamikekin batera joan beharra
- Politikarien inplikazio eta sentsibilizazioaren beharra
- Berdintasun batzordearen sorrera
- Tratu onen jardunbidea: Herri mailan lantzeko jardunbide gisa ulertuta, berau sustatzea
- Datu bilketan hirugarren kasilla sartzeari (beti ere hirugarren kasilla horretan dauden pertsonen beharrei erantzuna emateko gai bada udala)

Orokorrean, bat datoz ordezkari politikoak, aitortzean ez dela berdintasun planaren jarraipenik egin. Udal mailan berdintasun arloaren egonkortasun eza ere aipatzen da, eta horrek berdintasun arloaren garapenean izandako eragina. Hala ere, herri mailan urrats garrantzitsuak eman direla aipatzen da, batez ere sentsibilizazio mailari dagokionez. Datozen lau urteetarako, berdintasun politiken bidez norabide bat ezarri beharra aipatzen da, arlo bakoitzarekin lankidetzan, eta udala eta herriaren erritmoak bateratu beharra.

TALDE FEMINISTAREKIN EGINDAKO BILERAN ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK

Talde feministarekin eginiko bileran, Udalberdin oihala moldatu da, beharrezko informazioa ahalik eta era eraginkorrean lortzeko asmoz.



Orokorrean, aipatzen da ekintza ugari burutu direla azken urteetan herrian, ez bakarrik udalaren aldetik; talde feministak berak eta herriko bestelako eragileek (Uda, Aresko...) sentsibilizazio ekimen ugari egin dituzte azken urteotan, eta herritarren kontzientziazio mailan eragina igarri da. Hala ere, 2018ko martxoaren 8ko ekimena seinalatzen da inflexio puntu bezala. Erronka nagusiak identifikatu dira aurreko ariketan, eta berdintasun arloari dagozkion baliabideak sendotzea aipatu da erronka bezala (emakume txokoa, berdintasun teknikaria, berdintasun kontseilua...), bai eta udal mailako lanketa sakonak burutzea ere (aurrekontu parekideak, jai parekideen gaineko lanketa, protokoloa eguneratzea...).

HERRIKO ERAGILEEKIN EGINDAKO BILERAN ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK

Herriko eragileekin kontraste bilera bat egin da, prozesuaren nondik norakoak azaldu, ebaluazioan ateratako ondorio nagusiak kontrastatu, eragile ezberdinen ikuspuntua jaso eta bigarren berdintasun planera begira erronkak finkatzen hasteko. 7 elkartek parte hartu dute guztira: Basotxo, Gu haziak gara, kurtzebarri, Hiruatx, Musika eskola, Uda eta Aratz.

Informazioa biltzeko, talde feministarekin erabilitako baliabide bera erabili da: moldatutako udalberdin oihala.

BERDINTASUN PLANAREN ONURAK

Orokorrean ez da izan I. berdintasun planarekin harremanik, baina uste da lagungarri dela berdintasun plan bat:

- Denok batera joateko baliagarria izan daiteke; ibilbidea markatzen du
- Prozesuaren ordena ekartzen du, pausu antzekoak ematen joateko
- Herriak badu gogoia berdintasuna emateko; hori batzen du
- Aurrera pausuak neurtzeko
- Proposamenak, iradokizunak... jasotzeko baliagarria

EKINTZAK

- Jaietako protokoloa
- Futbol eskola mistoa
- Aresko martxa
- Martxoak 8, azaroak 25
- Indarkeria protokoloa
- Santagedako bueltako ospakizunetan aldaketa
- Soziedadeetan parte hartzea
- Dantzan, euskal dantzetan emakumeek parte hartzen dute eta mutilen dantzak egiten dituzte (mutilek parte hartzeko zailtasunak)
- Elizan emakumeen eta gizonen parte hartzea parekatzen ari da
- Frontoian emakumeen partidak gero eta gehiago
- Kaleko diskurtsoan eta hitz egiteko moduan aldaketak
- Emakume ospetsuen erakusketa
- Transexualitatearen gaineko hitzaldia
- Basotxo elkarteko konposaketan parekidetasuna kontuan hartzen da, eta gainerako elkarteetan ere gero eta lanketa gehiago egiten dira parekidetasun hori bideratzeko, musika eskolan esaterako 2*2 planteatzen da gurasoen elkartearen eraketarako.

ERRONKAK

Transexualitatearen kudeaketan normalizazio batera iristea
Adinduen elkarteetan lehendakaritza paperean emakumeen presentzia bermatzea (bailara mailan)
Musika eskoletan lehendakaritza postuan gizonetzkoen presentzia bermatu (bailaran)
Arropak: baserritar arropak, kinttuenak...
Dantzetan: beinke loramendi...
Ekintzetan parte hartzea parekatu
Kirolean ezberdintasun handiak daude oraindik ere. Parte hartzeari dagokionean, nerabezeroan emakumeak kirolek urruntzen dira (beranduago itzultzen dira)
Lan arloan
Hezkuntza arloan
Aginte organoetan (udala, zuzendaritza batzordeak...)

OINARRIZKO BALIABIDEAK

Zeharlerrokotasuna
Hedapena: lorpenak gizarteratzea

UDALAREKIN HARREMANA-KOMUNIKAZIO BIDEAK

Berdintasun arloarekin_ Arazo puntualen aurrean edo ekintza konkreturen bat koordinatzeko

Bileran zehar aipatuenez, elkarteek orokorrean ez dute kontaktu gehiegirik izan udaleko berdintasun arloarekin, unean uneko arazo edo proiektuetan salbu. Beraz, planaren gaineko ezagupena ere mugatua izan da; gehienek planaren existentziaren berri

bazeukaten, baina gehiago ez. Hala, harreman hori indartzeko beharra ikusten da, eta II. Berdintasun plana herritarrengana hurbildu beharra.

Berdintasun plana dokumentu estrategikoa izan daitekeela uste da, eta denok batera norabide berean egitearen garrantzia aipatu da. Bakoitzak bere taldean gaia aztertzeko beharra ikusten da, II. Berdintasun planera begira ekarpenak egitera bidean.

Orokorrean, uste da aurrera pausu nabarmenak egin direla: ekintza puntual ugari egin dira, sentsibilizazio maila handitzen doa, elkarteetako zuzendaritza taldeetan aldaketak ematen ari dira... Hala ere, arlo bakoitzean erronka garrantzitsuak identifikatu dira, parte hartzeari lotuta, sentsibilizazioari, balioen aldaketei... Horretarako, zeharlerrokotasuna aipatu da oinarritzko estrategia gisa, eta emaitzak gizarteratzearen garrantziaz hitz egin da. Komunikazioaren bidez sentsibilizazioa areagotu eta herritarrak edo eragileak norabide horretan lan egitera deitzea litzateke helburua.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO, KONTSULTATU EBALUAZIOA JASOTZEN DUEN DOKUMENTU OSOA

6. ARETXABALETAKO II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Aretxabaletako II. Berdintasun plana, Emakunderen VII. Berdintasun planean oinarriturik, eta Aretxabaletako udaleko egitura eta beharrak kontuan harturik, sei lan-ildoren baitan egituratu da.

Egitura aldaketa honen helburua, udalaren ekintzen globaltasuna islatu, eta estrategia eta helburu komunak ezartzea izan da. Zeharlerrokotasuna erdigunean ezarriz, Aretxabaletako udal-politika bateratu bat planteatzen da berdintasun plan honetan.



Aipatutako lan ildoen baitan, zenbait helburu planteatu dira, eta ekintza sorta bat helburu horiek aurrera eraman ahal izateko. Honakoak dira lan-ildo bakoitzaren barruan ezarri diren helburuak eta horiek gauzatzeko planteatu diren ekintzen proposamena:

GOBERNANTZA

1. HELBURUA: Aretxabaletako II. berdintasun plana martxan jarri, eta jarraipen mekanismoak aktibatzea
2. HELBURUA: Formazioa eta sentsibilizazioa
3. HELBURUA: Berdintasun ikuspegia eguneroko lan-moldeetan txertatzea
4. HELBURUA: Berdintasun printzipioa udaleko araudian txertatzea

EMAKUMEEN PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA EKONOMIKOA

5. HELBURUA: Udaleko parte-hartze egituretan parekidetasuna lortzeko neurriak ezartzea
6. HELBURUA: Udalak eskaintzen dituen lan baldintzetan berdintasun irizpidea txertatzea
7. HELBURUA: Aretxabaletako enpresa eta merkatariekin sentsibilizazio kanpainak burutzea

AUTONOMIA ETA NORBERAREN BOTEREA

8. HELBURUA: Emakumeen ahaldunderako ekimenak bultzatzea
9. HELBURUA: Emakumeen autonomia garatzeko ekimenak bultzatzea

SENTSIBILIZAZIOA ETA BALIOAK ALDATZEA

10. HELBURUA: Hezkidetzeta proiektu integral bat garatzea
11. HELBURUA: Herritarrak sentsibilizatzeko ekimenak garatzea
12. HELBURUA: programazioan (jaiak-kultura eta kirola) estereotipoak ezabatzeraz eta balio tradizionalak aldatzeraz bideratutako ekimenak garatzea

ZAINZTA ERDIGUNERA EKARTZEA

13. HELBURUA: Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko baliabideak eskaintzea udalak antolatutako ekintzetan
14. HELBURUA: Hiriaren antolamendua diseinatzerakoan zaintza kontuan hartzea
15. HELBURUA: Herritarrekin sentsibilizazio kanpainak burutzea

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

16. HELBURUA: Informazioa herritarrei helaraztea
17. HELBURUA: Emakumeenganako edozein indarkeria motari aurre egiteko mekanismoak ezartzea
